

Herrialde mestizoak

✱ BIDAIA prestatzen ari ginea Interneten eskuratutiko informazio apurak nahaste eta harriduraz kutsatu zigun herrialde hauekiko jakinmina. Interneteko informazioaren arabera, guyana hitza bertako jatorrizko populazio baten hitza da eta «ur askoko lurraldea» esan nahi du. Hego Amerikako alde hau Karibe eta Arawak jatorriko etnia amerindiar desberdinek populatzen zuten, baina prozesu historiko aldrebesen ondorioz bertara munduko hainbat zokotako giza komunitateak iritsi izan dira, herrialde hauen bereizgarria den aniztasun sozio-kulturala sortuz. Europarrek XVII. mendean kolonizatu zuten inguru hau; ingeles, holandes eta frantsesen artean banatu zuten jabegoa. Ondoren, Afrikatik esklaboak ekarri zituzten lurak lantzeraz, eta azkenik, esklabotza aroa amaitu ondoren, langile merke modura, Asiako inmigranteak etorri ziren, indiarrek bereziki, baina baita indonesiar eta txinatar multzo aipagarriak ere. Herrialde hauetako populazioek jasan dituzten eraldaketa bortitzek ez dute hainbeste ere kaltetu berezkoa duten oparotasun naturala, eta oraindik maila bikainean kontserbaturiko jatorrizko hiru ekosistema aurki daitezke: euri-ohiana, sabana eta kostaldeko mangladiak.



Herrialdeotan nabarmenak dira oraindik kolonialismoaren arrastoak.

tro batzuk kentzearen (300 km), hiribururaino eramango gintuen autobus-furgoneta batean sartu ginen. Paramaribo da Surinamgo hiriburua, Georgetownekiko antzekotasun handikoa: nahasmen izugarria, merkatu giroa... Baina ezaugarri bereizgarriak ere baditu: hizkuntza desberdina (holandera eta sranan-a) eta jatorri indonesiarreko komunitate aipagarria (populazioaren %15) besteak beste. Aldi berean, Surinam Guyana baino aberatsagoa da, eta hori batik batik hiriburuaren inguruko etxalde garestietan nabari daiteke. Hiriburutik kanpo bizi den biztanle kopurua txikia da.

Aukaner-ak

Hego Amerikako beste herrialdeetako Zimarro (Venezuela) edota Kilombo (Brasil) komunitateen parekoak dira Aukaner-ak. Komunitateok esklabotza garaian sortu zituzten, jabeek eskapo egin eta oihanean ezkutatu ziren beltzek sortu ere. Komunitateon baitan Afrikako jatorrietako bizimodu berreraiki zuten, hizkuntza, erlijio eta gizarte eredu propioak sortuz. Komunitate hauek, esklabotza aroa amaitu ondoren, beren nortasuna gorde dute eta gaur egun arte iraun dute. Haietako batzuk bide alboan kokatu dira, nekazaritzako produktuen salmenta eta hiriko produktuen eskuratzea errazteko. Aukanerrek kopuru aldetik Surinamgo jendearen %10 osatzen dute; ez dira, beraz, talde gutxitua.

Guyana Frantsesa

Maroni ibaia zeharkatu eta bestaldean jendarme batek harrera egin zigunean, beste behingoz txundituta geratu ginen. Bi ertzak hurbil egon arren, Maroni ibaiak amildegi gogorra sortzen du: alde batean Hego Amerika bitxi eta pobrea, eta bestean Europako probintzia urruna. Guyana Frantsesean bidaiaren funtsa dextente aldatu zen, beraz; europar bizikleteroa ez zen OVNI bat paisaia hartan..., ez behintzat ikas-bidaia egiten ari ziren frantses taldeen edota oihane-ko ibaietan pirainak arrantatzera Paristik etorritako exekutiboekin alderatuz gero.

Cayenneraino geratzen zena lasaia izan zen, eta aurreko egunetan egiteko gogoz geratu ginenak betetzen saiatu ginen: erreka bazterrean patxadaz lo egin, kokotero hondartzen atzetik ibili. Kourou herriko hondartza izan zen bidaiaren topatu genuen lehena;



Arianne suziriak botatzen diren zentroa, Guyana Frantsesean.

koa izan zitzaigun atsedean hartzeko toki lasaierik topatzea, eta are gutxiago ametsetan ikusitako hondartza eta kokoterorik. Bide ertzean mokadu bat hartzeko geldialdietan bertokoei izandako harremanak ere ez ziren oso erosoak, haien erabat anormalak baikinena bai gu eta bai egiten ari ginena; errepide jende gaiztoz inguratua zegoela, kontuz ibiltzeko eta horrelako animoak jaso genituen. Halere, gaua hoteletan eman genuen eta bertako langileekin izan genuen luze jarduteko aukera. Errepide bazterreko beste «animatzaileek» esaten zutenaz bestera, jende jatorria ere bazela frogatu genuen.

Bi eguneko ibilbidearen ondoren Guyana eta Surinam banatzen dituen ibai zabalaren ertzeraz iritsi ginen. Bi ertzak egunean behin lotzen ditu ferry batek. Ferryak Surinamgo ertzeraz eramanez ondoren, eta bidaiari kilome-

bertan, kokoteroen babesean jarri eta egunsentiari itxaron genion. Momentu hartako xarmari zurrara berezia gehitu zion parez pare Saluteko uharteak edukitzeak. Kondairazko uharte haietan Guyana Frantsesa kolonia penala izan zen garaiko ziega beldurgarrienak gorde zituzten, preso politiko eta arrunt, animo eta ospetsuen gatibuleku izan ziren ziegak. Egungo Guyana Frantsesa, berriz, Itsaso Bestaldeko Departamendu kategoriapen, espazientzien jaurtileku bilakatu da, industria aeroespaziala baita jarduerako ekonomiko nagusietakoa. Gure ibilbidea amaitzeko, Arianne suziriak botatzen diren zentroa bisitatu genuen eta bidearen amaieran Cayenne hiriburu lasaian ibili ginen. Handik hegoak jasotzean, Henri Charrière Papillon eleberria ireki genuen, Guyanetan egindako bidaiari harrigarri hari luzapena eman nahian

GUYANA

Antolakuntza politikoa.	Errepublikako Kooperatiboa
Hedadura:	215.000 km ²
Populazioa:	825.000 biztanle
Hiriburua (pop.):	Georgetown (200.000 biz.)
Biztanleen jatorria:	%51 indiar (Asia), %43 afroguayanar, %4 amerindiar, %2 europar
Europarren inbasioa:	1615
Independentzia:	1966
Per capita errenta:	1.950 \$
Jarduera ekonomiko nagusiak:	Nekazaritza (azukrea, arroza), meatzaritza (bauxita, aluminioa), basogintza.

SURINAM

Antolakuntza politikoa.	Errepublika
Hedadura:	163.270 km ²
Populazioa:	440.000 biztanle
Hiriburua (pop.):	Paramaribo (240.000 biz.)
Biztanleen jatorria:	%35 indiar (Asia), %32 afrosurinamdar, %15 indonesiar, %10 aukaner.
Europarren inbasioa:	1650
Independentzia:	1954
Per capita errenta:	3.700 \$
Jarduera ekonomiko nagusiak:	Meatzaritza (bauxita, aluminioa), nekazaritza (palmondo olio, arroza, bananak).

GUYANA FRANTSESA

Antolakuntza politikoa.	Itsasoz Bestaldeko Departamendua (Frantzia)
Hedadura:	91.250 km ²
Populazioa:	134.000 biztanle
Hiriburua (pop.):	Cayenne (40.000 biz.)
Biztanleen jatorria:	%70 kriollo (afrikar/afroeuroparrak), %10 europar, %8 asiarrak, %8 brasildar, %4 amerindiar.
Europarren inbasioa:	1650
Per capita errenta:	6.000 \$
Iharduera ekonomiko nagusiak:	Oihaneko produktuak, arrantza, industria aeroespaziala

Iturria: Lonely Planet